

Aurrekoak sortu ziren enbor beretik sortu dira, Iparraldeko bertsolaritzan, zuhaitz aldaxka gazteak. Azken urteetan eztanda egin du bertako bertsolaritzak. Itxura aldaketa nabaria gertatu da, gainera. Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Xumai Murua, Miren Artetxe, Eneritz Zabaleta... bertsolaritzaren azal berria eta etorkizuna dira.



nola antolatzen diren, begirale moduan nola jokatu behar den eta abar erakusten saiatzen gara; izan ere, etorkizunean beraiek hartu beharko dute ardura hori».

Amets berri hau guztia kostaldean hasi zen, baina Iparraldera heldu da eta Zuberora ere helduko da laster

Amets, Sustrai, Xumai, Miren eta Eneritzen belaunaldia fruitu bat da, baina, aldi berean, ispilu bat ere bai atzetik heldu diren gaztetxoagoentzat: «Amets eta Sustrai garai batean Bizkaian Iturriaga eta Elortza izan zirena dira, eta Ametsen txapela ere bultzada garrantzitsua izan da».

Etorkizuna hastapena baino errazagoa

Etorkizunerako urrats garrantzitsua egin dute azken urteetan Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. «Baikor» ageri dira bertan bertsozaleak: «Zailena egina dago; bertsoak prestigioa hartu du, materiala prestatuta dago, zortzi bertso-eskola daude, ekintza gehienak antolatuta daude...». Oinarri sendo horiekin

eraikina solairuz solairu egiten joatea falta da.

Baina, sarritan, errazegi hitz egiten da Iparraldeari buruz. Hiru lurraldeen egoera, ordea, ez da bera inondik ere. Zuberoa «Iparraldearen iparraldea» dela deritzo Karlosek, «baina horra ere helduko gara». Gaur egun, bertsolaritzan jarduten diren ikasleen erdiak lapurtarrak dira. Hala ere, apurka-apurka Nafarroa Beherean sartzen hasiak dira,

eta datorren urtean «segur aski», Maulen sortuko da bertso eskola bat.

Hala, datorren ikasturtean, beste maila bat igo dezaketela uste du Aizpuruak. Hazparnen eta Uztaritzen bertso eskolak sor daitezke. Horretarako, baina, Hendaiako eskola Ametsen esku utzi beharko du, aurrean Donibane-Lohizuneko Sustrairen eskuetan utzi duen bezalaxe.

Hain zuzen ere, bi bertsolari hauek dira Euskal Herri osoan zehar plazarik plaza gehien dabilzanak. «Gai ona da», dio Karlosek: «Bertsolari horiei tresnak eman, bidea erakutsi eta haiek etxean lan egiten badute, besteak ere aterako dira aurrera». Sortu dira aldaxka gazteak, eta aurrerantzean ere sortuko dira besteak.

Amets Arzallus

Arian-arian

Iparraldean, ez dugu gehiago nigar eginen bertsua iraganeko zerbait dela pentsatuz. Iparraldean, ez dugu gehiago nigar eginen bertsua hiltorian dela erranez. Fini dira istorio horiek. Bertsua jalgi da plazara. Anitzetan entzun da, eta ez dut berriz errepikatuko. Denek dakite: «Iparraldean orain bi urte seriozki hasi ginen lanean bertsuari bultzada berri baten emaitako. Bertsularien Lagunak elkarteak pario ausart bat egin zuen, eta Karlos Aizpuru ikastolaz ikastola hasi zen...eta abar eta abar». Horiek orain bi urteko kontuak dira. Orain, lehen emaitzei behako bat botatzeko oreina heldu da. Zertan gara?

Egun, Karlosek hasi lana aitzina doa. Bertsularitza iparraldeko irakaskuntzan integratua da. Emeki-emeki, bertsua ikastoletako haur guziengana heltzen ari da. Hastapenean, lana kostaldean jarri zen abian, baina arian-arian, uhaina gero eta barnealderago iristen ari da. Ikasturte berri honetan, Karlos Donibane-Garaziko ikastolara ere heltzen da aste guziz. Beraz, Mattinen lurretan bertsuaren sua aski pindartua da. orain Xalbadorren inguruetan ere hasi da pindartzen. Etahunengana iristea eskas zaigu.

Hala ere, mementoan, dugunarekin lan egin behar dugu. Ikastoletan emaiten denaz gain, bertsu eskola berri anitz ere sortu dira. Zonbaitzuk hain berriak ere ez dira, hasieratik martxan ezarri baitziren. Bertsu eskola guziak kondatuz, berrogei eta hamar bat ikasle gara. Gehienak, hamar urte inguruko haurrak, eta batzuk, ontsa trebatuak. Etsenplu bezala, iaz, urtero antolatzen den Bertsulari Tiki egunean, iparraldeko eskolarteko txapelketa jokatu zen. Hamalau urtez beheitikoa, taldeka jokatu zen, eta 10-11 urte inguruko hogeit bat haur aritu ziren bat-batean. Haietarik hiru Euskal Herriko finalera heldu ziren Mungia. Handietan, Sustrai txapela iparraldeari eman zion final hartara. Beraz, emaitzak ez dira eskas.

Alta, garrantzitsua da, bertsuazaleasuna ere indar berri bat hartzen ari dela, eta irakaskuntzako mugimendu horri jarraiki, bertsuzale berri bat sortzen ari da. Hizkuntzaren muga hautsi ezinezkoa dugu, baina muga horren barnean, bertsua hats berri bat hartzen ari da.

Makeako topaketa gero eta aitzinago doan lan berri baten isla besterik ez da izan. Gainera, ohartu gara, Makean bildu diren haurrek eta bertsu eskolatan ari direnek bertsuarekin amets egiten dutela. Guk ere, horieri beha, amets egiten dugu.

Euskal sorkuntza gaztearen plazaratzeko

Gazte leho!

Izen emaita abenduaren 31a arte

Xehetasunak : GURE IRRATIA

00 33 (0)559593001